

1911-2011

gabriel celaya

KOLDO MITXELENA KULTURUNEA
Areto Nagusia | Salón de Actos
Martxoak 14-21 Marzo 2011

Abrir nuestras ventanas; sentir el aire nuevo;
pasar por un camino que huele a madre selvas;
beber con un amigo; charlar o bien callarse;
sentir que el sentimiento de los otros es nuestro;
mirarse en unos ojos que nos miran sin mancha,

...

“Momentos felices” en *De claro en claro* 1956



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera

Martxoak 14 Marzo – Astelehena | Lunes 19,30

FÉLIX MARAÑA. “Gabriel Celaya, vida y temperatura”

Celaya vivió encendido por una pasión de turba que alentó su respiración vital: la poesía. La poesía, no como recreación formal de la literatura o la acción pública, sino como construcción de pensamiento. Toda la obra de Celaya, incluyendo su fervor de Tentativas, se alienta y sostiene en una temperatura emocional, tensa como razonada, por servir y servirse de la poesía para alumbrar, sin deslumbrar, las zonas ocultas del yo. Su poesía, toda su poesía, tiene, además de la gracia personal del acento que advirtió José María Valverde, una punción de endecha moral, en la que revisa vida y conciencia, historia y conducta. María Teresa León, al escribir sobre Celaya insistió precisamente en ello: “...Porque el poeta es, además, una conducta”.

Celaya, pasioaren goritan bizi izan zen, pasioak zirikatu zion bizi-arnasa, poesia. Ez, alabaina, literatura edo egintza publikoa formalki birsortzen duen poesia, pentsamendua eraikitzen duena baizik, Celayaren obra osoak, are Tentativas liburuan darion suharrak, temperatura emozional urduri bezain arrazoituan hartzen du arnas eta euskarri, poesia baliatzen baitu eta poesiaz baliatzen baita niaren eremu ezkutak argitzeko, itsutu gabe. Haren poesiak, poesia osoak, badu, Jose Maria Valverdek doinuan antzeman zion berezko graziaz gain, eresi moralaren zitzada moduko bat, zeinaren eraginez berraztertzen dituen bizitza eta kontzientzia, historia eta portaera. María Teresa Leonek, hain zuzen, ikuspuntu hori azpimarratzen zuen, Celayari buruz idazten zuenean: “... Zeren poeta, gainera, portaera bat baita”.

Martxoak 15 Marzo – Asteartea | Martes 19,30

Recordar de nuevo: testimonios sobre Celaya

JOSÉ MANUEL MARTÍN MEDEM. “Gabriel, inolvidable combatiente de la ternura”

Tuve la suerte de relacionarme con Celaya durante sus últimos quince años. Vivo muy cerca de la casa de Gabriel y Amparixu en el barrio madrileño de Prosperidad. Me gustaría hablar de cómo, al conocer personalmente a un poeta al que admiraba por haberlo leído, encontré a un gran hombre, a un inolvidable combatiente de la ternura.

Celayarekin harremanak izateko zoria izan nuen, haren bizitzaren azken hamabost urteetan. Gabriel eta Anparitxuren etxetik oso hurbil bizi naiz, Madrilgo Prosperidad auzoan. Azaldu nahiko nuke nola, irakurri nionagatik miresten nuen poeta bat pertsonalki ezagutzean, topo egin nuen gizon handi batekin, xamurtasunaren soldatu ahaztezin batekin.

CARLOS AURTENETXE “Teoría del abrazo”

Sin duda Celaya, fue, es, para nosotros, el mejor, el mayor ejemplo, el ejemplo limpio del hombre que es de todos, de todos nosotros, simplemente por ser él, siendo él. Acaso ello sea lo más significativo de todo. El más claro ejemplo del poeta, una visión profunda de las cosas en un corazón ilimitado.

Inolako zalantzarik gabe, Celaya onena izan zen, eta da, guretzat; denona, gu guztiona, den gizonaren eredurik onena, eredu garbia, bera izanez bera izan zelako, besterik gabe. Agian hori izango da adierazgarriena. Poetaren eredurik garbiena, gauzen ikuspegi sakon bat bihotz mugagabe batean.

Martxoak 17 Marzo – Osteguna | Jueves 19,30

ANTONIO CHICHARRO. “Gabriel Celaya, aquí y ahora”

Es el título de una conferencia en la que, al calor de la celebración del Centenario del Nacimiento del poeta vasco, se tratarán aspectos relacionados con lo que dicho evento significa en relación con la vida literaria de nuestro tiempo, al tiempo que se plantearán aspectos de su poesía y poética y el sentido y significación que las mismas puedan poseer.

Hitzaldi baten izenburua da. Hitzaldi horretan, euskal poetaren jaiotzaren mendeurrena aitzakiatzat hartuko dugu, gure garaiko bizitza literarioaren alderdi batzuk mendeurrenaren argitan aztertzeke, eta, aldi berean, Gabriel Celayaren poesiaren eta poetikaren gorabehera batzuk mahairatuko ditugu eta gorabehera horien zentzua eta esanahia aztertuko ditugu.

Martxoak 18 Marzo – Ostirala | Viernes 19,30

Recital de poemas / Poemen errezitaldia

TACHIA

En los años de la década de los cincuenta del siglo pasado, y de la mano de Blas de Otero, conocí a Gabriel Celaya y Amparixu Gastón y nos hicimos amigos. Luego, conocí a Ángela Figuera Aymerich, y a menudo hablábamos de Gabriel Aresti. Me ha parecido interesante que todos ellos acompañen en mi recital a Gabriel Celaya, “un vasco desde dentro”. Todos tenían las mismas ilusiones, las mismas preocupaciones y un lenguaje común... Estoy feliz de que lo arropen.

Aurreko mendeko berrogeita hamarreko hamarkadan, Gabriel Celaya eta Anparitxu Gastón ezagutu nituen, Blas de Oteroren bidez, eta lagun egin ginen. Geroago, Angela Figuera Aymerich ezagutu nuen, eta Gabriel Arestiri buruz hitz egiten genuen askotan. Interesgarria iruditu zait horiek denak Gabriel Celayarekin batera agertzea, “euskaldun bat barrutik” nire errezitaldian. Denek zituzten ilusio berdinak, kezka berdinak eta hizkera komun bat... Zoriontsu naiz, Gabriel Celayak haien babesa izango duelako.

Martxoak 21 Marzo – Astelehena | Lunes 19,30

JOSÉ ESTEBAN: “Gabriel Celaya: Mi recuerdo y nuestra Memoria”

La vida de Gabriel Celaya fue como un torrente que arrastró poesía, amor, política, amistades, alcohol y atardeceres sin cuento. Rememorar, pues, esa vida, es adentrarse en un laberinto inacabable de poemas, teatro, novelas, memorias, libros, en fin, amargas y felicidad. Y no menos oceánica es su obra.

Celaya o mar
que sin descanso canta

Gabriel Celayaren bizitza izan zen uholde bat bezalakoa, poesia, maitasuna, politika, lagunak, alkohola eta ezin konta ilunabar berarekin arrastaka eraman zituena. Beraz, bizitza hori berririo gogora ekartzea da galtzea poemen, antzerkiaren, eleberrien, memorien, liburuen eta, azken buruan, samintasunaren eta maitasunaren labirinto amaigabea. Eta haren obra ez da, horregatik, gutxiago ozeanikoa.

Celaya edo itsasoa
betiereko kantua

Coordinación | Koordinaketa: JOSÉ LUIS PADRÓN PLAZAOLA



KOLDO MITXELENA Kulturunea
c/ Urdaneta, 9. 20006 Donostia-San Sebastián
Tfno.: 943 112 893 - Fax: 943 112 765
e-mail: programazioa@gipuzkoa.net

KMK zuzenean RealVideo bidez
<http://kmk.gipuzkoakultura.net>
www.gabrielceleya.com

FÉLIX MARAÑA (León, 1953)

Escritor y periodista, ha dedicado buena parte de su vida intelectual a estudiar a Gabriel Celaya y difundir su obra. Desde que en 1984 participó en el homenaje de Gipuzkoa al poeta, le ha dedicado un libro *Gabriel Celaya: señales de travesía* (1996), y ha realizado la selección y el prólogo de las siguientes antologías del poeta vasco: *Gaviota* (1988), *San Sebastián, ciudad abierta* (1989), *Gaviota. Antología Esencial* (1990, 1991), *Donostia, hiri zabala* (1992), *Recordando a Gabriel Celaya* (Consejería de Educación y Cultura de Madrid y Ministerio de Cultura; 1992). Es autor del estudio epilodal y la procura de edición de *Ritos y farsas* (1989), que recoge la obra teatral completa de Celaya, y ha participado en dos libros colectivos sobre el poeta: *Gabriel Celaya. Contexto, ética y estética* (Universidad de Deusto, 1994) y *Encuentro con Gabriel Celaya. Noción y memoria de poeta (1911–1991)*, [Universidad del País Vasco, 1995], de cuyo volumen es editor. En 1990 realizó a su vez la edición de *Orígenes*, el último poemario de Celaya, publicado por la Universidad del País Vasco. Ha preparado la edición de las cartas entre Celaya y Miguel Labordeta, de próxima publicación. En 1987 recibió el Premio de Periodismo Miguel de Unamuno.

Idazlea eta kazetaria. Bere bizitzako urte asko Gabriel Celaya ikertzen eta haren obra ezagutzera ematen ibili da. 1984an Gipuzkoak Gabriel Celayari egin zion omenaldian parte hartu zuenez geroztik, liburu bat idatzi du euskal poetari buruz Gabriel Celaya: señales de travesía (1996), eta baita haren antologia hauek hautatu eta hitzaurrea idatzi ere: Gaviota (1988), San Sebastián, ciudad abierta (1989), Gaviota. Antología Esencial (1990, 1991), Donostia, hiri zabala (1992), Recordando a Gabriel Celaya (Madrilgo Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritza eta Kultura Ministerioa; 1992). Celayaren antzerki lan guztiak jasotzen dituen Ritos y farsas (1989) bildumako epilogo-azterketa eta edizio lanak egin ditu eta poetari buruzko bi liburu kolektibotan parte hartu du: Gabriel Celaya. Contexto, ética y estética (Deustuko Unibertsitatea, 1984) eta Encuentro con Gabriel Celaya. Noción y memoria de poeta (1911-1991) [Euskal Herriko Unibertsitatea, 1995]]; bera izan zen azken liburu horren editorea. 1990ean, Celayaren Orígenes azken poema-liburuaren edizioa egin zuen (Euskal Herriko Unibertsitateak argitaratua). Celayaren eta Miguel Labordetaren arteko gutunen edizioa prestatu du (liburua laster argitaratuko dute). 1987an, Miguel de Unamuno kazetaritzako saria jaso zuen.

JOSÉ MANUEL MARTÍN MEDEM (Madrid, 1952)

Periodista. Trabajó durante treinta años como redactor en RNE y TVE. Formó parte en un periodo del Consejo de Administración de RTVE, en representación de Izquierda Unida. Fue corresponsal de la Televisión pública española en México, Colombia y Cuba. Su último libro se titula *Colombia feroz* (Los libros de la Catarata, Madrid, 2009).

Kazetaria. Hogeita hamar urtez erredaktore izan zen RNE irratian eta TVE telebistan. Garai batez, parte hartu zuen RTVE-ko Administrazio Kontseiluan, Izquierda Unida alderdiaren izenean. Espainiako telebista publikoaren berriemaile izan zen Mexikon, Kolonbian eta Kuban. Bere azken liburua, Colombia feroz (Los libros de la Catarata, Madrid, 2009).

CARLOS AURTENETXE (Donostia-San Sebastián, 1942)

Poeta. La Universidad del País Vasco reunió en 1990 toda su obra poética en el volumen *Palabra perdida (1977-1989)*, donde se recogen algunos de sus poemarios escritos originalmente en francés. La editorial Bermingham ha publicado sus libros de poemas *La casa del olvido* (1999), *Jorge Oteiza, la piedra acontecida* (2000) y *Acanto ciego* (2006), que certifican respectivamente el diálogo entre su expresión poética y la creación de los artistas Eduardo Chillida, Jorge Oteiza y Remigio Mendiburu. La misma editorial ha publicado también su poemario *Los cormoranes* (2002), con prólogo de Carlos Rojas, así como dos volúmenes de la poesía de Jean Mambrino, traducidos del francés por el propio Aurtenetxe. En 1984 participó en el homenaje de Gipuzkoa a Celaya, organizado por la Diputación Foral. Ha recibido importantes premios de poesía, como el *Blas de Otero*, el *Ciudad de Irún*, el *Alonso de Ercilla*; y de narrativa, como el *Ciudad de San Sebastián de Cuentos*.

Poeta. Euskal Herriko Unibertsitateak bere lan poetiko osoa bildu zuen 1990ean, Palabra perdida (1977-1989) bolumenean (jatorriz frantsesez idatzitako poema batzuk daude tartean). Bermingham argitaletxeak La casa del olvido (1999), Jorge Oteiza, la piedra acontecida (2000) eta Acanto ciego (2006) poema liburuak argitaratu dizkio; liburu horietan, elkarrizketa bat moldatzen du bere adierazpen poetikoaren eta, hurrenez hurren, Eduardo Txillida, Jorge Oteiza eta Remigio Mendiburu artisten sorkuntzaren artean. Argitaletxe horrek berak Los cormoranes (2002) poema liburua argitaratu dio, Carlos Rojasen hitzaurrearekin, eta baita Aurtenetxe berak frantsesetik itzulitako Jean Mambrinoren poesiaz osatutako bi bolumen ere. Parte hartu zuen Gipuzkoak Celayari, Foru Aldundiak antolatuta, 1984an egin zion omenaldian. Poesiako sari garrantzitsuak jaso ditu; esate baterako, Blas de Otero, Irungo Hiria eta Alonso de Ercilla. Baita Donostia Hiria lehiaketako ipuin ataleko saria ere.

ANTONIO CHICHARRO (Baeza, 1951)

Miembro de la Academia de Buenas Letras de Granada y premio de Excelencia Docente de la Universidad de Granada en 2009 (Rama de Artes y Humanidades), es Catedrático de Teoría de la Literatura y Literatura Comparada de la Universidad de Granada; director del Grupo de Investigación “Teoría de la Literatura y sus aplicaciones”, y secretario ejecutivo del Institut International de Sociocritique. Una de sus líneas de investigación se centra en la obra de Gabriel Celaya, sobre el que ha publicado diversos ensayos, tanto en revistas especializadas como periódicos y libros. Fue el principal promotor y padrino de la concesión del doctorado honoris causa a Gabriel Celaya por la Universidad de Granada, así como co-editor de su *Poesía Completa*, promovida por la Diputación Foral de Gipuzkoa y editada por Visor. Es autor de una antología poética de Gabriel Celaya (Alambra, 1990). En 1990 participó en el curso que la Universidad del País Vasco dedicó a Celaya en San Sebastián, así como en el libro *Encuentro con Gabriel Celaya, noción y memoria de poeta* (1995).

Granadako Arte Ederretako Akademiako kidea eta Granadako Unibertsitateko Irakaskuntza Bikainaren sariaren irabazlea 2009an, Arteen eta Humanitateen Atalean. Literaturaren gaineko teoriaren eta literatura konparatuaren katedraduna Granadako Unibertsitatean; “Literaturaren gaineko teoria eta bere aplikazioak” ikerketa taldearen zuzendaria; eta Institut International de Sociocritique elkarteko idazkari exekutiboa. Gabriel Celayaren obra da bere ikerketa ildoetako bat. Celayari buruz hainbat saiakera argitaratu ditu nola aldizkari espezializatutan, hala egunkari eta liburutan. Granadako Unibertsitateak Gabriel Celayak doktore honoris causa izendatzeko ekimenaren sustatzaile eta babesle nagusia izan zen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatu eta Visor etxeak editatutako Poesía Completa argitalpenaren editore-kidea izan zen. Berak moldatu zuen Gabriel Celayaren antologia poetikoa (Alambra, 1990). Parte hartu zuen Euskal Herriko Unibertsitateak Celayari buruz 1990ean Donostian antolatu zuen ikastaroan, eta baita Encuentro con Gabriel Celaya, noción y memoria de poeta (1995) liburuan ere.

TACHIA (Eibar, 1929)

Estudió en Madrid en la Escuela Superior de Arte Dramático, así como en París, con René Simón y Tania Balachova. En 2010 estrenó el monólogo “Isabel viendo llover en Macondo”, de Gabriel García Márquez, con quien mantiene una gran amistad. Ha recitado en muchos lugares del mundo poemas de Pablo Neruda, Blas de Otero y Miguel Hernández, entre otros.

Madrilgo Arte Dramatikoko goi mailako Eskolan ikasi zuen, eta baita Parisen ere, René Simón-ekin eta Tania Balachova-rekin. 2010ean, lagun handia duen Gabriel García Márquezen “Isabel viendo llover en Macondo” bakarrizketa estreinatu zuen. Besteak beste, Pablo Nerudaren, Blas de Oteroren eta Miguel Hernandezen poemak irakurri ditu munduko leku ugarian.

JOSÉ ESTEBAN (Sigüenza, 1936)

Escritor, periodista, folclorista, paremiólogo y editor. Estudió Magisterio y Derecho, e intervino en la vida política clandestina española durante la dictadura franquista. Contribuyó a poner de moda el género literario de la novela histórica con dos obras, *El himno de Riego* (1984) y *La España peregrina* (Madrid: Mondadori, 1988). Obtuvo una beca de la Fundación Juan March para preparar un trabajo sobre “La novela social de preguerra (1928-1936)”. Creó la editorial *El Árbol*. Posee una importante biblioteca de más de 40.000 volúmenes. Amigo de Gabriel Celaya, compartió con el poeta, no sólo inquietudes históricas y literarias, sino una misma conciencia republicana. Conoce, literaria e históricamente, la historia de la ciudad de Madrid, como pocas personas de su tiempo. Tuvo una amistad profunda y filial con José Bergamín. Ha publicado libros sobre la cocina española y es autor de un ensayo primoroso, *Guadalajara y Baroja* (1992). Es autor de un original volumen, *¡Judas! ¡Hi de puta!: Insultos y animadversión entre españoles* (Renacimiento, 2003). En 1990 participó en el Curso de Verano que la Universidad del País Vasco dedicó a Celaya en San Sebastián, así como en el libro *Encuentro con Gabriel Celaya, noción y memoria de poeta* (1995).

Idazlea, kazetaria, folklorista, paremiologoa eta editorea. Irakaskuntza eta Zuzenbidea ikasi zituen, eta parte hartu zuen Espainiako bizitza politiko klandestinoan, Frankoren diktaduran. Eleberri historikoaren genero literarioa modan jartzen lagundu zuen El himno de Riego (1984) eta España peregrina (Madrid: Mondadori, 1988) bi obrekin. Juan March fundazioak beka bat eman zion gerra aurreko (1928-1936) eleberri sozialari buruz lan bat prestatzeko. El Árbol argitaletxea sortu zuen. 40.000 ale baino gehiagoko liburutegi garrantzitsu bat osatu du. Gabriel Celayaren laguna izan zen eta kontzientzia errepublikanoak elkartu zituen biak, kezka historiko eta literarioez gain. Bere garaiko inork gutxi bezala ezagutzen du Madrilgo historia, bai literarioa bai historikoa. Adiskidetzak sakon eta filiala izan zuen Jose Bergaminekin. Espainiako sukaldaritzari buruzko liburuak argitaratu ditu. Bereak dira, baita ere, Guadalajara y Baroja (1992) saiakera dotorea eta ¡Judas! ¡Hi de puta!: Insultos y animadversión entre españoles (Renacimiento, 2003) lan bitxia. 1990ean parte hartu zuen Euskal Herriko Unibertsitateak Celayari buruz Donostian antolatu zuen ikastaroan, eta baita Encuentro con Gabriel Celaya, noción y memoria de poeta (1995) liburuan ere.